



HONDARRIBIKO UDALA

## JAI NAGUSIETAKO ARGAZKI LEHIAKETA - 2018

Hondarribiko Udaleko Kultura Sailak 2018ko Jai Nagusietako Argazki Lehiaketa antolatu du, ondoko baldintzen arabera:

**PARTAIDETZA.**- Lehiaketa honetan edonork parte har dezake.

**GAIA.**- Libre - Hondarribiko Udalerrian.

**MODALITATEA.**- Argazkiak, koloretan edo zuri-beltzean.

**LANAK ETA AURKEZPENA:** Partaide bakoitzak gehienez lau argazki aurkez ditzake saritu edota argitaratu gabeak. **Ezinbesteko neurria: 20 x 30 zmtro. (printatutako azalera) eta markorik gabe.**

Lanaren atzekaldean izen bat idatziko da eta horrekin batera datorren kartazal itxiaren kanpoaldean, aurkeztutako lanaren edo lanen izen berdinak.

Kartazalaren barruan egilearen izen-abizenak, helbidea, N.A.N.ren fotokopia eta telefonoa idatziko dira.

Lanak norberak eramanda edo postaz nahiz mezulari bitartez bidalita honako helbide honetara eraman ahal izango dira:

Hondarribiko Udala – BAZ (Biztanlearen Arreta Zerbitzua)  
Kale Nagusia, 20  
20280 Hondarribia (Gipuzkoa)  
Orduategia: 09:00etatik 13:30era (astelehenetik ostiralera)

gutunazalean adierazi beharko duelarik “2018ko Jai Nagusietako Argazki Lehiaketa”, 2018ko ekainaren 29ko 13:30 orduak baino lehen.

**ERAKUSKETA.**- Aurkeztutako argazkiak (guztiak edo Udalak aukeratutako batzuek) erakutsiko dira Arma Plaza Interpretazio Zentruan, abuztuaren 27tik irailaren 16a bitarte.

### SARIAK:

1. Saria: 500,00 €
2. Saria: 400,00 €
3. Saria: 300,00 €

Sari hauei P.F.G.Z.ri dagokiona kenduko zaie.

**SARI BANAKETA.**- Jai Nagusietan egingo da.



## HONDARRIBIKO UDALA

### OHARRAK:

- Udalak web orrian ([www.hondarribia.eus](http://www.hondarribia.eus)) berak hala nahi gabe gerta litezkeen aldaeren berri emango du.
- Saritutako argazkiak argitaratu edo erakusketan azaltzeko Udalarenak izango dira, guztietan horien egileak aipatuko direlarik, eta egileek lan osoaren jabeak direlako ardura hartuko dutelarik.
- Aurkezten diren lanen neurriak, oinarrietan eskatutakoak izango dira. Hala izango ez balitz, ez dira erakusketan jarriko.
- Lehiatzaile bakoitzak sari bat besterik ezingo du jaso.
- Saritutako argazkien jabea Udala izango da.
- Lehiatzaileek baimena eman beharko dute, antolatzaileen iritziz merezi duten lan guztiak argitaratzeko.
- Antolatzaileek ahalik eta hobeki zainduko dituzte argazki hauek, baina hondatu edo galduko balira, ez lukete inolako erantzunkizunik izango.
- Lanak, Udal BAZeko bulegoetatik (Kale Nagusia, 20 - behea) jaso ahal izango dira irailaren 25etik 29ra, eguerdiko 12:00etatik 13:00era. Aipatutako epean jasotzen ez diren lanak ulertuko da uko egiten dietela.
- Lehiaketa honetan parte hartzearekin, baldintza hauek erabat onartutzat ematen dira.
- Epaimahaikoen ustez aurkeztutako lanak saria jasotzeko behar adineko mailarik ez balute, sariak eman gabe utzi ahal izango ditu.
- Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

Hondarribian, 2018ko otsalaren 22an

ALKATEA,



Izp. Txomin Sagarzazu Ancisar

**HONDARRIBIKO  
UDALA**